



Zazpi haur izango dituzte aurten martxan jarri duten haurreskolan

ALKIZA ▶ Herrira jende berria joan denez, beharrezkoa zela haurreskola azaldu du Jon Roteta alkateak ▶ 4



Hiru haur eta hezitzaile bat Alkizako haurreskolan, atzo. I.GARCIA



ASIER IMAZ

ION MINTEGIAGA ▶ EUSKAL PRESO OHIA

«Irrintzi handiena
geratzen zaigu botatzeko»

Irgan larunbatean geratu zen aske
bost urte espetxean egon eta gero ▶ 6

HITZA jaso eta abantaila guztiez gozatu nahi baduzu...

**Egin zaitez harpidedun!
egunkaria +
beherapenak +
zozketak...**

Egunkaria buzoian jasotzeko
utzi atariko giltza ondorengo
puntuetan:

TOLOSA
HITZaren egoitza
Araba etorb. 5 behea

LEITZA
HITZaren egoitza
Herriko plaza, 1

1.- BETE ETA ERAMAN / BIDALI BEHEKO HELBIDEETAKO BATERA:
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Araba etorbidea, 5 behea - 20400 TOLOSA edo
Herriko plaza 1 - 37880 LEITZA. **Nahitaezkoa da datu guztiak betetzea**

▶ Izen-abizenak: _____ ▶ NA: _____
▶ Lanbidea: _____ ▶ Jaioteguna: _____
▶ Helbidea: _____ ▶ Herria: _____
▶ P.K: _____ ▶ Tel.: _____ ▶ mugikorra: _____
▶ Elektronikoa: _____
▶ Kontu zenbakia: □□□□□□□□□□□□□□□□□□

2.- TELEFONO BIDEZ ere eman ditzakezu zure datuak:
Bezero arreta zenbakia: **902 82 02 01** (Astegunetan 08:30-20:30
Larunbategi: 09:00-13:00)

Ahazkorrak: Hitza 15.000 Kopio Organismoa. Datu Pertsonalak: Idazkaria, bereak. Jakinarazpen hori zure datu pertsonalak. EGOKIA HERRIA HERRIAGAK. Ez duen inongo autorizazio. Hain zuzeneko diruak, errepikatu dituzte olatuetan horietan. Zure datu guztiak babesteko, zuzendutako erabilera garrantzitsua. Hain zuzeneko zuzeneko, hitza hitza hitza hitza. HITZA HERRIA HERRIAGAK. Ez duen inongo. 5. hitza. 2007. Hitza eta hitza hitza hitza.

o'baba

KALE ETORBIDEA

Kale Nagusia 45
943 247 469
Villabona

**Razioak,
otartekoak
eta
pintxoak**

GIZARTEA ▶



Villabonako bigarren eskuko materialen azoka eta bide hezkuntzako antzerkia izan ziren, besteak beste, Mugikortasunaren Astearen baitan. HITZA

Mugikortasun Asteko ekitaldiak «arrakastatsuak»

Ernioaldea Udaltalde 21, Tolosako Udala eta San Lorenzo Udaltalde 21 «oso gustura» azaldu dira antolatu zituzten ekitaldietan izandako parte-hartzearekin

ERREDAKZIOA

Ernioaldea Udaltalde 21ek eta Tolosako Udalak Mugikortasun Astearen balorazio positiboa egin dute. Askok izan dira antolatutako ekintzak eta orokorrean, «arrakastatsuak» izan direla azaldu dute.

Aurtengo protagonistak ikastetxeetan eskaini dituzten bide hezkuntzari buruzko antzerkiak eta Villabonan izan zen Mugikortasunarekin loturiko 2. Eskuko Materialen Azoka izan dira antolatzaileren esanetan. Lehenengoan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 600 ikasle izan ziren Isabel Agirresarobe eta Alex Tello ak-

toreek antzeztutako saioa ikusten. Bigarrenean berriz, 44 pertsonak utzitako 180 produktu desberdin bildu ziren Tolosa, Aduna, Asteasu, Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkilgo udalteeetan alde aurretik antolatu ziren bilketa puntuetan. Aipatzekoa da, Tolosaldekan kanpoko jendea ere gerturatu zela azokarako materiala uztera eta Tolosako Begiristain eta Ibarrrako Arsuaga txirringulari dendekek ere estokean zuten materiala salmentan jarri zutela. Guztira 14 bizikleta, 8 kasko, bizikletako 2 pare zapatila, 8 erropa, monopatin bat, 4 patin pare, 2 babesteko material eta bestelako 3 produktu ere saldu

ziren. Azokara gerturatu zen jendea, ekimenarekin «oso gustura» azaldu zen. Bizikleta txekoetan ere «jende ugari» izan zen herri gehienetan.

Antolatzaileren ustez, parte-hartze eskasena larunbatean ospatu zen Erniopeko Txirringulari Biran eman zen, izan ere, eguraldia ez zen aproposena izan txirringularen ibiltzeko.

Ibarraldean «gustura»

San Lorenzo Udaltalde 21ek ere hainbat ekitaldi antolatu zituzten Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan, eta antolatzailerekin gustura azaldu dira izan duten parte-hartzearekin.

Ekitaldi guztien artean, gaizki aparkatuta zeuden ibilgailuei isun sinbolikoak jartzeara azpimarratu dute. «Uzturpe Ikastolako gazteak gelditu gabe aritu ziren lanean». Antolatu zuten beste ekitaldi bat autoz, oinez edo bizikletaz norik egin erositak azkarrago izan zen, eta bizikletaz ari zenak irabazi zuen; «autoak ez duela hainbeste zentzu herrian konturatzeko egin genuen».

Azkenik bizikleta martxa ere «oso arrakastatsua» izan zen; «parte-hartzaile asko izan genituen, eta horretan Ikastolaren laguntza eskertu behar dugu, gainerako ekitaldietan bezala parte hartu zutelako».

POLITIKA ▶

Manifestazioa «errepresio egoera» salatzen

Gazte Independentistek deituta geldialdia egingo dute bihar, 12:00etan, eta gero, manifestazioa Triangulotik, «eskualdeko errepresio egoera salatzen».

KULTURA ▶

Ertzaintzaren banda, gaur, lurramendin

Ertzaintzaren bandak emaldia eskainiko du gaur, lurramendi egoitzako kaperan. Saioa 11:00etan hasiko da.

KULTURA ▶

'Bamako' filma gaur zine forumean

Gaurko zine forum saioan, Abderrahmane Sissako zuzendariaren *Bamako* pelikula izango da ikusgai. Lehen saioa 19:15ean izango da, eta 21:45ean bigarrena.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Lurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

GIZARTEA ▶



Markel Olanok Orexa eta Tolosa bisitatu ditu

I. Terradillos ▶ Markel Olanok herrietako errealitatea gertutik ezagutzeko asmoarekin jarraituz, herenegun Orexan —ezkerrean— izan zen, herriak eta herritarrek dituzten beharrak eta aurrera begira dituzten proiektuak aztertzen. Bestalde, atzo Tolosan izan zen Gipuzkoako Aldun Nagusia. Lehendabizi Bedaio auzoan izan zen,

eta ondoren Tolosako udaletxera —eskuinean— joan zen Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Onintza Lasa berdintasun zinegotziarekin batera. Herrietan dauden beharrak entzun nahi dituela azaldu zuen Olanok, eta herri txikien eta handien arteko oreka lortzea dela helburu nagusietako bat. A.I.MAZ/I.TERRADILLOS

GIZARTEA ▶

Egun bakarra, gutxiegi agian?

Udazkeneko festarekin «gustura, errepikatze gogoz eta hobetzeko asmoz» daude antolatzaileak

ESTI EZEIZA

Joan den larunbatean, goiz goizetik hasi eta gauera arte jendez gainezka izan zen Alde Zaharra. Lehendabiziko aldiz Udazkeneko jaia ospatu zen Tolosako gunerik ezagunenean. Eguna igaro eta gero, hurrengo pausoa antolatzaileentzat balantzea egitea da. Hala, «oso gustura» agertu dira denak. Honenbestez, errepikatze eta hobetzeko asmoa agertu dute Ezpeleta eta Alde Zaharra Dendak elkarteak.

Goizeko 10:00etan hasi ziren ekitaldiak, jaiaren hasiera ir-

gartzen zuen dianarekin, eta goizaldean amaitu, THCren kontzertuarekin.

Ekitaldien artean, afariak arrakasta izan zuen. Izan ere, hasiera batean 200 lagunentzako izan behar bazuen ere, azkenean 50 gehiagorentzat jarri behar izan zituzten aulkiak. Bestalde, ohi bezala haurtxo ugari bildu ziren goizean egindako entzierrora, eta buruhandi eta erraldoien kalejirara. Eguneko unerik hunkigarrienetakoa izan zen Ezpeleta eta Alde Zaharra Dendak elkarteak, bertako kide bati egindako sari banaketa.



Duela gutxi sortu den The Jones Brother's txarangaren emanaldiko une bat. HITZA

HELENA ETA ANA ORUS ▶ ORUS DENDAKO JABEAK

«Saltzen dugun guztiaren inguruan ematen ditugu azalpenak»

Orus dendako hirugarren belaunaldia da Helena Orus (Tolosa, 1950) eta Ana Orusena (Tolosa, 1954). Larunbatean Alde Zaharra Dendak elkarteak beraiei eman zien saria.

Espero al zenuten irabaztea?

Ez, 15 saltokik genuen irabazteko aukera. Ustekabea izan zen, gu baino urte gehiago daramatzatenak ere bai baitira.

Zergatik uste duzue zuei eman dizuetela?

Alde Zaharrean Orus izeneko

hiru drogeria egon dira, eta hau da geratzen den bakarra. Gainera, mundu guztiak ezagutzen gaitu, eta jende asko etortzen da aholkuak eskatzera eta galderak egitera.

Zer da zuena bezala denda txiki batean erostearen abantaila?

Saltzen diren produktu guztiak azalpen bat daramatela berarekin. Saltzen dugun guztiaren inguruan ematen ditugu azalpenak.

Zuena, hirugarren belaunaldia da, hurrengoek ere jarraitzeko asmoa al dute?

Ez, pena da baina, denek ogibide bat ikasi dute, eta horretan jarraitu nahi dute. Gainera, badakite saltzaile lana oso lotua dela. Dena den, guk ahal dugun arte jarraituko dugu.

Urte hauen, zer balantze egingo zenukete?

Ona, erakusmahaiaren atzean egoteak asko aberasten zaitu. ◀



HITZA

JOSE ANTONIO LOPEZ ▶ ASTEASUARRA TABERNAKO ZERBITZARIA

«Zerbitzaria psikologoa ere bada momentu askotan»

15 urterekin hasi zen, eta 27 urte daramatza Asteasuarran Jose Antonio Lopezek (Tolosa, 1965). Orain horrenbeste urtean egindako lanagatik saritu du Ezpeleta elkarteak.

Nola bizitu zenuen sarla emateko unea?

Taberna barruan nengoen eta dultzaineroak entzun nituen honantz zetozela, orduan harritu nintzen. Gero, barruan,

mikrofonotik hitz egiten hasi ziren eta konturatu nintzen nitzaz ari zirela. Oso urduri jarri nintzen hasieran, baina oso gustura.

Zergatik uste duzue zuri eman dizuetela, eta ez beste bati?

Beti adarra jo izan didate urte asko daramatzadalako, eta horregatik izango da.

Urte hauen guztien zer balantze egiten duzue?



HITZA

Hasteko, lan handia egin beharra daukazu. 15 urte nituela hasi nintzen, eta gaur egun, gauzak asko aldatu dira. Orduan jende gehiago ibiltzen zen, azken urte hauetan berriz, asteen zehar oso jende gutxi ibiltzen da.

Txikiteroaren ohitura ere galdu zen ari da?

Txikitero asko hil ere egin direla esan behar da, gehienak helduak baitira. Gazteak asteburuan eta egun berezietan ateratzen dira.

Zerbitzatzeaz gain, jendearen arazoak ere entzun behar izanzen al dituzue?

Bai, zerbitzaria psikologoa ere bada askotan. Jendeak gauza asko kontatzen dizkigu. ◀

ALKIZA ▶ HEZKUNTZA



Haurreskolaren gela handian egoten dira haurrak denbora tarte handienean. I. GARCIA

Haurreskola martxan jarri dute eta aurten zazpi haur izango dira

Herrira jende gazte berria joan dela eta «haurreskola beharrezkoa zela» azaldu du Jon Roteta alkateak

IMANOL GARCIA

Alkizak haurreskola du martxan. Irailean ireki zituen atek eta lau haur daude, horietatik hiru urtebete ingurukoak eta bat zortzi hilabetekoa. Bi hezitzaile daude bertan lanean, Ainitze Alberdi lanaldi osoan eta Edurne Antia lanaldi erdian. Urte hasieraren inguruan beste bi haur sartuko direla eta apirilaren inguruan beste bat aurreikusten dute. Beraz, ikasurte bukatzerako zazpi haur izango dira haurreskolan.

Jon Roteta alkateak azaltzen duenez, haurreskola martxan jartzea beharrezkoa zen: «Herrira hazten ari da. Etxe berriak egin dira eta jende gaztea etorri da bizitzera herrira. Normalean bi gurasoek egiten dute lan eta haurreskola martxan jartzeko behar zegoela ikusten zen». Izan ere, herri bilera batean ateratzen zen gaia eta hortik au-



Zenbait haurrek bertan bazkaltzen dute. I. GARCIA

rrera jarri da prozesu guztia martxan. «Lehenengo urtean zazpi haur egongo direla ikusita, garbi dago beharrezkoa zela Alkizako haurreskola irekitzea», gaineratu du Alkizako alkateak.

Lokala, Udalaren kontu

Beste haurreskoletan bezala, Udalak bere jabetzakoa den lokala egokitu du eta Haurreskola Partzuergoak hezitzaileen soldatak ordaintzen ditu eta material mugikorak —mahaiak, aulkiak, jolasteko materiala...— jarri ditu. Udalak

70.000 euro inguruko aurrekontua izan du Peraldeia kalean dagoen lokala egokitzeko.

Haurreskolak gela handi bat, logela bat sehaskekin, haurerentzako komun egokitua, aldagela hezitzaileentzat eta bulegoa ditu. Pixkanaka atontzen ari dira eta oraindik, esaterako, bulegoan ez dute ordenadorerik.

08:00etatik 17:00etara dago irekita haurreskola eta haur bakoitza egoten den ordu kopuruaren arabera ordaintzen da kuota. «Haurrak ondo egokitu dira haurreskolara», azaldu du Ainitze Alberdik.

IRURA ▶ HEZKUNTZA

Ikastolak lekukoa jasoko du igandean Bergaran

Irurako Ikastolatik Bergarako Kilometroak nola antolatzen diren ikustera joan dira

ERREDAKZIOA

Irurako Ikastolarentzat berezia izango da datorren igandea. Izan ere, egun horretan Kilometroak izango da Bergaran eta bertan Irurako Ikastolari lekukoa emango diote. Bergarako Ikastolako lehenakariak Ikastolen Federazioari emango dio lekukoa eta horrek Irurako Ikastolako lehenakaria den Sorkunde Irazuri emango dio.

Ikastolako lehenakaria ez da bakarrik izango. Zuzendaritzako kideak ere bertan izango dira eta Irurako Kilometroetarako antolatu den talde iraunkorreko jendea ere bertan izango da. Izan ere, batzorde ezberdinetako jendea Bergaran Kilometroak nola antolatu diren eta egunean zer lan egiten den ikusiko dute. Bide batez, Bergarako laguntza ere eskainiko diete irurarrek.

VILLABONA ▶ ARETO FUTBOLA

Transportes Lakunzaren lehen partida etzi, etxean

ERREDAKZIOA

Transportes Lakunza Villabonako areto futbol taldea Euskal Ligan lehiatzen ari da aurten eta asteburu honetan etxeko lehenengo partida jokatu du. Olaederra kiroldegian izango da neurketa hori, etzi, 18:00etan, A.D. Suisaco-Armentia talde gasteiztararen aurka.

Ligako lehenengo neurketa etxetik kanpo jokatu zuen pasa den asteburuan. Porrot gogorra jaso zuen Transportes Lakunzak, Astraburuaren aurka 8-1 galdu baitzuten.

Ander Nuñez, Ibon Aranzabe, Juankar Santxez, Lander Uzkudun eta Hautsi Izagirrek jolastu zuten hasierako talde-

an. Ordezko bezala Oskar Urbano, Sinoe Sanz, Asier Etxaniz eta Aitor Jimenez aritu ziren. Lau taldekidek ezin izan zuten joan partidara: Sergio Pascual, Xabier Blantx, Asier Aginaga eta Urko Arin.

Transportes Lakunzatik eskerrak ematen dituzte neurketa ikustera joan zirenei eta etxean jokatu behar duten lehen partidarako animatzen die jendeari Olaederrara joatera.

Bestalde, Transportes Lakunzaren bigarren taldeak, Hirugarren Mailako Txanpakak etzi bigarren neurketa izango du, Oartzunen, 19:30ean. Lehenengo neurketa ere galdu egin zuten, Ordiziaren aurka, 4-5.

ANOETA ▶ IKASTAROK

Helduei zuzendutako eskulanetako ikastaroa

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak helduentzat eskulanetako ikastaroa antolatu du. Hilaren 16an hasi eta ekainaren 3an bukatuko da. Klaseak Hozpel kaleko udal lokalean egingo dituzte, asteartean 15:00etatik 17:00etara.

Ikastaroaren prezioa 80 eurokoa da, materiala kontuan hartuta. Izena emateko epea hilaren 11 arte izango da eta udeletxean edo kiroldegian egin behar da. Partaideek konpromisoa dute beraien eskulanak aurkezteko Udalak antolatzen dituen erakusketan.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Argazki kamera. Panasonic kamera digitala, irailaren 26an galdu zen, Ibarra eta Tolosa artean. Diruz sarritako da. 686 33 66 16.

UGARTE ▶ JAIK

Harri-jasotzaileak ariko dira igandean

Festetan bihartik hasita igandera bitarte adin guztietarako ekitaldiak izango dira; tartean, puzgarriak eta txapelketak

NEREA URBIZU

Amezketako Ugarte auzoan Errosario Amaren jaiak aste-buruan ospatuko dituzte. Aurten puntako harri-jasotzaileak gonbidatu dituzte igande arratsalderako. Dena dela, ostiralaz gerotik jada, intereseko ekitaldiak daude: bai kirolzaleentzat, umeentzat, nahiz dantza gustatzen zaienentzat ere.

Bihar iluntzean emango diote hasiera jaiak, 20:30ean. Herri afaria ere izango da elkarrean, suziariaren ondoren.

Etzi, pilota partidak goizean zehar izango dira, 11:30etik aurrera. Bazkaldu aurretik eta ondoren, arratsaldean, puzgarriak eta zezen mekanikoa izango dira haurrentzat. Eguneko egitarauaren bukaeran trikitixa doinuak izango dira; tartean, Laja eta Landakanda.

Harri-jasotzaile handiak

Igandean, Errosarioko Amaren eguna da, eta meza izango da, hain zuzen ere, egunaren lehen ekitaldia, 11:30ean. Orduan hasiko da jaiak, beraz, ez du etxera joateko aitzakiarik balioko, txakolin dastaketa, Laja eta Landakanda trikitilariak, eta arratsaldean harri-jasotzaileak baitaude. Kasu honeetan, Izeta II.a, Goenatxo II.a, Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza izango dira Ugarteko pilotalekuan.

Ondoren, ugartearrek *Inguruxoa* dantzatzuko dute, usa-dioari gogor eutsiz.



Aurten ere puzgarriak izango dira pilotalekuan, etzi. N. URBIZU

EGITARAUA ▶ ERROSARIOKO AMAREN JAIK

URRIAK 5, ETZI

20:30. Kanpai jotze eta suziariak.

21:00. Herri afaria.

22:30. Saioa eta Alabierren eskutik erromeria.

▶ Atsedendaldian toka lehiaketa.

URRIAK 6, LARUNBATA

11:30. Gazteboen arteko pilota partidak: Puldain-Artola eta Zubeldia-Zubeldia;

Amundarain-Zubeldia eta Zabala-Artola; Sagastumeliribarren eta Zabala-Otamendi.

Umeentzat. Puzgarriak eta zezen mekanikoa, 12:30etik

14:00etara eta arratsaldean.

16:30. VIII. Mus Txapelketa.

▶ Arratsaldean zaldiak ibiliko

dira, Ugarten zehar

ibilalditxoak egiteko.

▶ Gero txokolatea umeentzat.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. Ansotegi eta Larrañaga trikitilariak.

▶ Atsedendaldian «ikuskizun bitxia».

URRIAK 7, IGANDEA

11:30. Meza Nagusia.

Jarraian. Txakolin probaketa.

Bazkaldu aurretik. Laja eta Landakandaren trikitixa saioa.

18:00. Harri-jasotzaileak: Izeta II.a, Goenatxo II.a, Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza.

▶ Ondoren, *Inguruxoa*.

20:30. Sagardo probaketa.

Bukatzeo. Laja eta

Landakandarekin trikitixa.

AMEZKETA ▶ NEKAZARITZA

Mallaberrira ganaduak botatzeko aukera dago

Ahuntzak menditik erretiratu behar dira

ERREDAKZIOA

Amezketako Udalak, Baserri mundu, mendi, baso eta nekazaritzaz bai abeltzantzaz arduratzen den Udal Batzordeak proposaturik, aurten ere Mallaberriko larreetara ganaduak botatzeko aukera luzatu nahi die herriko ganaduzaleei.

Abenduaren amaieraraino Mallaberriko larreetan ganaduak ibiltzeko aukera zabaldu nahi du Udalak eta larrealdi hori nola kudeatu aztertu ahal izateko, izena emateko epea ireki dute.

Ondorengo egunetan eta beti ere urriaren 11, 15:00ak

baino lehen behintzat Mallaberrin ganadua larreratzeko interesa duten guztiek eman dezakete izena udaletxean, ganadu kopurua zehaztuz.

Ondoren, hilaren 11n bertan, 15:00etan egingo da, larreratzeko zozketa izena eman dutenen artean.

Ahuntzak erretiratzeko deia

Amezketako mendian ahuntzak dabiltzala jakinik, hauen jabeek deia luzatzen zaie larraldiko izaeraz, berehala, ahuntzak erretiratzeko, Gipuzkoako Mendietako Ordenantza edo Arautegiaren arabera debekaturik daudelako.

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

Matxurak konponduta

Telefono finkoen zerbitzua martxan da berriz

ERREDAKZIOA

Herenegun eguerdian telefonoz baliogabetutako zerbitzuak martxan jartzen hasi ziren.

Abaltzisketan arratsaldean nagusitu zen egunerokotasuna. Internet zerbitzua beranduago jarri zuten martxan. Hala ere, oraindik ere hainbat txokotan telefono zerbitzurik gabe jarraitzen dute.

PILOTA ▶

Asteburuko emaitzak, erdipurdikoak

Gipuzkoako Txapelketan Aurrera-Saiazek eta Zazpi-Iturririk lortutako emaitzak hauek izan dira: biak jubenilen artekoa eta seniorren artekoa jokatu zuten eta biak amezketarrek irabazi zituzten (22-2 eta 22-7). Aurrera-Saiazen beste neurketa guztiak irabazi zituzten. Zazpi-Iturririk, berriz, 5 partidak irabazi zituen, eta 3, galdu.

BIDEGOIAN ▶

Iñaki Alberdi auto gidariaren hitzaldia, bihar

Bihar 20:00etan, Bidegoian-gor Kultur Astearen baitan Iñaki Alberdi auto gidariaren hitzaldia izango da, Bidaniako balio anitzeko gelan. Bertan, berak jorratzen duen kirolaz ariko da, eta baita bere auto bereziaz ere. Ondoren, 21:30ean herriko Kontzeju jatetxean afaria izango dute izena eman zutenek. Etzi ere ekitaldiak izango dira.

AMEZKETA ▶

1959. urtean jaiotako kinto bazkaria, etzi

Duela lau urte 1959. urteko kintoen afaria egiten hasi ziren Amezketan. Aurten, hilaren 6an, larunbatean, 1959. urtean jaiotako kinto bazkaria hau izango da Txindoki jatetxean, 14:30ean. Izena oraindik ere eman daiteke, eta Joxe Mari Goikoetxeari eman behar zaio (630 855500). Deialdia Ugarten eta Amezketan jaiotakoei egin zaie.

Astakiloen abenturak
8 liburuz osatutako ipuin bilduma

Berrizko Atzagak idatzitak - Marrazkiak: Jokin Mitxelena

- 1- Astakiloak Anbian
- 2- Txakolinak batzen
- 3- Astakiloak Finisterra aldean
- 4- Zirku batzen
- 5- Manager bibotoduna
- 6- Astakiloak New Yorken
- 7- Astakiloak Afrikan
- 8- Afrikako zahaltz txakila

Urriaren 6tik aurrera, larunbatero BERRIAREKIN

+4,5 €

Liburu guztiak erosi gero, astakiloen marrazki bildumen DVDa oparit
6 abentura biltzen ditu, 60 minutuko iraupena du.

berria

ION MINTEGIAGA ▶ EUSKAL PRESO OHIA

«Irrintzi handiena geratzen zaigu oraindik botatzeko»

Euskal preso baten bizi-baldintzak, bizipen pertsonalak eta espetxea beraren esanahiak izan ditu hizpide Ion Mintegiaga, 'Minde'-k

ASIER IMAZ

Iragan larunbatean aske geratu zen Ion Mintegiaga, *Minde* (Ibarra, 1979), espetxean 5 urte egon ondoren. Egunean bertan egin zioten Ibarra ongietorria herritarrek eta gerturatu ziren familia, adiskide eta eza-gunek.

Espetxetik atera, etxera etorri eta ongietorria.

Hasiera-hasieratik harrigarria izan zen. Espetxetik irten orduko senide eta lagun min ugari zain nituen jada autobusez joanda. Herrira iristean ere beste hainbat herritar plazan zeuden iritsi bezain pronto besarkadaka hartzeko. Arratsalde partean berriz manifestazioan eta ongietorri ekitaldian espero ez nuen jende pila elkartu zen. Sentsazioak bizi-bizi nituela ibili nintzen, egoerak gaindituta, bata eta besteari muxuka eta besarkadaka, pozarren.

Herria aldatu ikusi al duzu?

Lehenengo begiradan ez behintzat. Segituan mendi bazterrei behaka ibili nintzen eta horiek berean mantentzen dira. Behin fijaszen hasita aldaketak ikusi ditut, baina uste baino gutxiago.

5 urte espetxean eta etxetik urrun gainera.

Ez da gozoa izan. Tartean 3 espetxe igaro ditut, bakoitza bere berezitasunekin, eta jarri egin behar. Soto del Realen (Madril) urte eta erdi 2. graduako moduluetan; ondoren, ia 3 urte Alcalá-Mecoco (Madril) isolamendu moduluetan; azkenik, azken 8 hilabete Leonen lehen graduako modulu itxi batean. Dispersioak Espainiako eta Frantziako ia espetxe guztietara barraiatu ditu preso politikoak. Gaur hemen zaude eta bihar han, beti etxetik urrun. Hala ere, ohikoa izaten da bazterrik aldrebesanean ere euskal presoren bat aurkitzea, eta Euskal Preso Politikoaren Kolektiboa (EPPK).



A. IMAZ

Zein da Kolektiboaren dinamika eta zer esanahi dauka presoarentzat bertako kide izateak?

EPPK arrazoi politikoengatik preso dauden euskaldunek osatzen dute; kolektiboa dena da euskal presoentzat. Kolektiboak espetxeari egokitutako jarduera darama aurrera. Lan politikoa eginez, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea eta amnistia exijituz, errepresioa salatuz, bizi-baldintza hobeen alde borrokatuz. Honela, hileko 2 ostiraletan gaixo larri eta sendaezinak dituzten kideen askatasuna eskatzeko eta isolamenduetan dauden kideak bertatik ateratzeko protesta egiten dute kolektiboa osatzen duten 700 presok, espetxeko zuzendariari instan-

zialak daude. Preso hauetako gehienak 2. graduan daude eta denetarik egoerak egon daitezke. Batzuk, kartzeleroen ton-to-mutil eta txibato, egoera hobean; besteak ahal bezala, gehienak drogak harrapatuta eta itxaropen txikiarekin. Badira lehen graduak daudenak eta duintasuna mantentzen dutenak ere. Gainera, inolako antolakuntzarik ez dute eta burua behar baino gehiago altxaz gero laster segituan jasotzen dute errepresioa, bakartuz, jipoi itzelak jasoz, espetxek aldatuz. Preso sozialak sistema kapitalista dekadente honen emaitza dira eta hala aztertu behar da fenomeno.

Nola bizi izan duzue prozesua eta bere haustura? Eraginik izan al du zuengan?

Euskal Herrian bezalaxe espetxeetan ere bazen itxaropena. Estatuaren jarrera ikusita segituan zapuztu zen ordea, berehala jabetu ginen iruzurrak. Prozesua hasieratik zegoen puskatua, gerora prentsan ikusienez hitzartuak ez baitzituen errespetatu Estatuak. Eta espetxeetan utzi duen eragina krudela izan da. Erakundeak su-etena eman baino aste pare bat lehenago Parot Doktrina delakoa ipini zuten martxan. Ordura arte Zigor Kode zaharrarekin epaitutako kideak gehienera 30 urte igarotzen zituzten espetxean, baina ikasketak, eskulana eta abar zirela eta erredentzioekin 18, 20, 22 urteko espetxealdia ondoren ateratzen ziren. Parot Doktrinak goitik behera aldatu du egoera, gaur egun erredentzio horiek ere kontuan hartzen dira baina zigor osotik abiatuta. Hau da, kide batek 300 urteko espetxe zigorra badu, erredentzioekin 10en bat urte jaitzen zaizkiola, 290 urte bete beharko lituzke. Egoera horretan 25 kide inguru ditugu orain eta pixkanaka-pixkanaka 80ren bat izango dira aurrerantzean. Zergatik hartu zuten neurri hau? Prozesuaren hasieran errepresioa bere puntu gorenean kokatzeko, horrela, balizko negoziaketetan mami politikoa muzin egin, dela autodeterminazio eskubidea, dela lurraldetasuna, eta ezker abertzalearen indar denak errepresioa desaktibatzen

DI-DA BATEAN ▶

Inkomunikazioa? Norbera bere buruarekin.
Isolamendua? Bakardadea, eskola jantzita.
Funtzionarioak? Pertsona miserableagorik ez da.
Rekuentoa? Arrotza behaka. Lasai, hemen gaude!
Bisa bisak? Hilabeteko bizi-poza.
Gutunak? Kontu freskoak.
Telebista? Kanpoko leihoa.
Kartzela? Zerri-aska itzela.
Sexua? Hori ere murriztua.
Drogak? Arnasa bezain naturala.

xahutzeko, dela presoak, dela legezatzek. Txantai modura ere bai, Damoclesen ezpata lepo zintzurrean ipini eta izua zabaltzeko.

Iñaki de Juana Chaos ere hor dago.

Iñakiren kasuak ere badu orain esandakoarekin zerikusirik. Funtsean bizi osoko zigorrak ipintzea da. Zergatik? Euskal preso batzuk beraiek mitifikatu dituzte eta bereziki krudelak izan dira eurekin. Irletara bidali zituzten, makina bat aldez jipoitu, isolatu, komunikazioak kendu... espetxealdia bukatuta hain egoera gogorretan zaildutako kideak erreferentziak dira Euskal Herrian, irmo mantendu baitira. Estatuak, bere ehunka milaka polizi, militar, epaile, kartzelero, sikarioekin errepresio mota or praktikatzen du: tortura, gerra zikina, polizi oldarraldiak, jipoiak, isolamenduak, eta hala ere, biolentziaren monopolio horrekin ez dira gai kontzientzia politikoa hartutako gizon-emakume xumeak borrokatik aldentzeko. Iñaki garraipenaren pertsonifikazioa da, estatu faxista honen lotsarako. Eraman ezina zaie egoera hau. Eta honi konponbidea ipintzeko justizia ministroak berak, frogak ez badaude sartuko dituela esateraino iristen dira, erremedioa arazoa baino okerrago bihurtuz. Halako erabakiekin sufritu arazten badute ere beraien kontraesan eta ahulezian sakontzeko baino ez die balio. Indarra eta biolentzia baino ez dute.

Espetxetik atera zinez, irrintzi eta oihuak entzuten ziren kanpoan. Baina espetxe barnetik zotozen hauek.

Burkide batzuk irrintzika aritu ziren, berri pozgarria baita presoren bat kaleratzea. Umorea eta bizipoza ez da falta izaten han barruan, borrokaren aldeko konbentzimendua handia baita. Hala ere irrintzi handiena geratzen zaigu oraindik, eta ez dugu atsedenek hartuko lortu arte.

ELOLA
ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotraturak neurritan.

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
TOLOSA

lo egiteko eta atsedeen hartzeko onena

LEITZA ▶ ERLIJOIA

Udaletxeko Jesusen Bihotza Santa Kruzera igoko dute

Leitzako Udalak lehenengo batzarrean laikotasunaren alde egin zuen idatzi batean, Jesusen Bihotza elizari emanaz



Jesusen Bihotza Santa Kruzeko ermitara noiz igoko duten oraindik ez dute erabaki. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Leitzako udalbatzak egindako lehenengo bilkuran Jesusen Bihotza batzar aretotik kendu eta elizari emateko erabakia hartu ondoren, herritar talde batek Santa Kruzera igotzea erabaki du.

Erabakia duela aste pare bat hartu zuten, eliz-ganbaran egindako bilera batean. Jabier Azpiroz leitzarrak, Mendialdeko gotzain-bikarioak zuzendu zuen bilera. «Duela hilabete zinegotzi batek deitu zidan eta hark esan zidan Udalak nolako erabakia hartu zuen eta nahi zutela zerbaite prestatu Jesusen Bihotza udaletxetik altxatzera-koan nonbait jartzeko, edo elkarre bat antolatu. Ni eskualdeko gotzain-bikarioa izanik eta leitzarra, eliz-ganbaran bil-tzea erabaki genuen».

Hasiera batean elkarre bat sortzeko asmoa bazuten ere, Azpirozek beste planteamen-

du bat egin zien. «Herriko apaiza Patxi Izko nire ondoan zen. Nik beraiek eskatutako informazioa eman nien, elkarre bat sortzeko ze estatutu egin beharko lirakeen. Baina beste gauza bat planteatu nien: elkarre bat sortu aurretik, herrian bazela ermita bat, Santa Kruzeko ermita eta han ez dagoela Jesusen Bihotzik eta behar bada leku egokia izaneko litzatekeela, gerora ere jendearen bisita jasoko zukeena». Bertan bildutako jendeari orokorrean soluzio ona iruditu zitzaion. «Gero, asoziazio bat behar den edo ez den Jesusen Bihotzaren debozioa mantendu edo bultzatzeko, nik esan nien momentuan, parrokiak Santa Kruzeko ermitara urtean hiru ateraldi antolatzen dituzenez horrela jarraitzekotan gelditu ginen, eta gero gerokoak».

Azpirozek argi utzi nahi izan duenez, «bilera hartan nik argi utzi nuen hasi orduko ez nin-

tzela Udalak hartutako erabakia buruz iritzirik ematera joan. Gainera, bilera alde guztietako jendea zegoen».

Udala laikotasunaren alde

Xabier Zabalo alkateak erabakia nola hartu zuten azaldu du. «Lehenengo bilkuran sartu eta segituan idatzi bat aurkeztu genuen, eta bertan Udalak laikoia izan behar zuela azaltzen genuen eta zentzu horretan Jesusen Bihotzak ez lukeela horrean behar Elizari ematea erabaki genuen. Apaizarekin hitz egin dugu baina oraindik ez digute esan zer erabaki duten».

Zabalok argi utzi du kristauei eta beste erlijioetako jarraitzaileei zor dieten errespetua. «Badakigu eztabaida sortu duen erabakia izan dela. Guk erlijio guztiak errespetatzen ditugu, baina Udalak ez du erlijiorik, laikoia da. Horregatik hartu dugu erabaki hori».

LEITZA ▶ XVIII. KASKAGORREN PENTATLOIA

Antolatzaileak lortutako emaitzarekin «oso pozik»

Pentatloia goizaldean amaitu zen Aurreran elkartu zirenean, parrandarekin jarraitzeko

N. GARZIA

XVIII. Kaskagorren Pentatloiarekin «oso pozik» daudela adierazi dute antolatzaileek. Jon Kasaresek azaldu duenez «oso ongi» joan zen pentatloia.

Aurtengoan, 18 urteren ondoren, inoiz baino jende gehiago bildu zen. «Jendearen partaidetzari dagokionez marka egin genuen, 105 partaide ginen osotara eta afaltzen, beste hainbeste».

Kirola eta festa uztartzen dituen pentatloi honetan, azkenean bi probek parrandarekin zerikusia baitute, sariak ez dutela garrantzirik azaldu du Jon Kasaresek. «Guk ez diegu ohiko sariei garrantzi handirik ematen». Aurtun, esaterako, 10 kamiseta banatu dituzte eta kirol probetan lehenengo gelditu direnak saritzeaz gain, beste pertsona batzuk ere kontutan hartu dituzte. «Azkeneko gelditu ziren 2 neskei kamiseta bana eman genien, gero XXL kamiseta partaide handienari eman genion. Zerbait partaide bereziei ere eman genizkien, duela 12 urte Leitzan azaldu eta orduetik herri-erorri ez direnei, esaterako».

15:00etan hasi zen pentatloia igeriketa probarekin Donostiako Ondarreta hondartzan. «Uretatik lehendabiziko atera zena Julen Sagastibeltza izan zen». Ondoren bizikletak hartu eta Ibarra aldera abiatu ziren errepide zaharretik. «Kotxeekin ez dugu inolako arazorik izan, sekula baino hobeto moldatu gara, denak elkarrekin taldean joateak ere lagundu zuen», dio Kasaresek. Ibarrran geldialdia egin zuten zerbait jan eta edateko eta handik Leitzako sagardotegi-

rantz abiatu ziren, hementxe amaitu baitzen bigarren proba. Proba hau Godoi leitzarrak irabazi zuen. Hirugarren proban herriko Gaztañaga tabernaraino laisterka joan behar zuten. «Lehenengo zein iritsi zen zalantzak daude, artalde batek errepidea moztu baitzuen, baina herrira lehendabiziko Julen Sagastibeltza iritsi zen». Behin Gaztañaga tabernara iritsi ondoren, bertakoek salda prestatu zuten parte-hartzaileentzat. «Lagunarteko proba izan arren, jendegor saiatzen da, bai bizikletan, bai korrika».

Afaria eta parranda

Gauean Kaskagorren Pentatloiren bigarren zatia iritsi zen: afaria eta parranda. Afari-az Aguraingo enpresa bat arduratu zen eta eskoletan egin zuten. «Oso ongi eman zituzten. Gero Torrea tabernan DJ bat jarri genuen, DJ Morau delakoa eta dantzan ibili ginen». Batzuk Uitziko festetara joan ziren, baina gehienak herrian gelditu ziren, autoa ez hartzeko. 05:00etan oraindik pentatloia amaitzeko zegoen, goizaldean Aurreran elkartu baitziren. «05:00-06:00 aldera baratxuri zopa bat atera genuen Aurrera elkartean eta gazta, txorizoa, ardoa... han ibili ginen gitarrekin abesten». 50 lagun inguru bildu ziren Aurreran pentatloirean azken orduak zahutzeko asmoz. Antolatzaileek kanpokoentzat lo egiteko lekua prestatu zuten herriko gimnasioan.

Datorren urtean berriro antolatuko dutela dio Kasaresek, umoretsu. «18 urte hauetan izandako filosofia mantendu nahi dugu hemendik aurrera ere».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶



Jose Ignacio Otamendi Agirre



Ez zaitugu ahaztuko.
Beti gurekin.

Garazi, Ander, Maialen, Marga, Maixa, Imanol eta Iñigo.

SEGURA-ORDIZIA, 2007ko urriaren 4a

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alkiza. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Alkizako jubilatuentzat irteera antolatu du urriaren 17rako Trebiño, Frias eta Miranda de Ebrora. Izen-ematea, Aiztondoko bulegoetan (943 693930) 18 eurotan.
Tolosa. Abesbatza Lehiaketarako abonoak salgai daude Tolosako Ekinbide Etxean (CIT) 60 eurotan. Sarrera solteak 18an jarriko dira salgai. Servikubtan eta Kutxaneten ere eros daitezke.
Tolosa. San Esteban auzoko herri krosa urriaren 12an izango da. Izen-ematea, Shanti Kirolak-en.

ZINEMA

Tolosa. Abderrahmane Sissako zuzendariaren *Bamako* filma emango dute zine-forumean, Leidorren 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Paisaiak lantzen dituen margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude.
Belauntza. Igandera arte, 17:00etatik 20:00etara zuhaitzetako onddoei buruz argazki erakusketa ikusgai Kultur Etxean. Joxe Manuel Lekuona Aranzadiko mikologoak osatu du; aditu nahiz zaleei zuzendua dago.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Tontorretan euskaraz

TOLOSA ▶ Mendiko hamazazpigarren buzoia jarri dute Trebiñon Laskorain ikastolakoek, 'Euskaraz Bizi' proiektuaren baitan

ERREDAKZIOA

Artengoan hamazazpigarrena da. Poliki-poliki Euskal Herriko txokoak mendi buzoiaz beteko dituzte Laskorain ikastolakoek, «euskararen alde urratsak emanez». Hala, *Euskaraz Bizi* proiektuaren baitan, mendi buzoia berri bat ezarri zuten joan zen igandean.

Atarrabiako Paz Ziganda ikastola, Lizarra ikastola, Laskorain ikastola eta Gasteizko Euskaraz Bizi taldeak, elkarrekin burutzen duten ekimen honetan, «euskararen aldeko apustuan pauso berri bat eman nahi izaten dugu». Igandean Gasteizko kideei egokitu zitzaizen egun pasaren antolaketa eta bertan bildu ziren 200 lagunek «egun zoragarria» igaro zuten Trebiño inguruan.

Jai giroan

Mendi buzoia ezarri zuten bertan bildutakoek; ez ziren bertolari eta dantzariak falta izan,



Egun zoragarria igaro zuten Trebiñon bildu ziren 200 lagun inguruk. HITZA

eta gasteiztarrek eskainitako hamaiketako dastatu ondoren Urizaharrera jeitsi ziren. Herriko errota eta museo etnografikoa ezagutu zituzten, bazkaldu eta txarangak animaturiko dantza saioa izan zuten arratsaldean zehar.

Iaz tolosarren txanda izan zen eta Erniozabalen ezarri zuten *Euskaraz Biziren* mendi buzoia. Datorren urtean, berriz,



Buzoia mendian. HITZA

Atarrabiako Paz Zigandaren txanda izango da.

Ikastolatik, «euskararen aldeko apustu honetan pauso berriak ematera animatu» nahi dituzte herritar guztiak. Horretarako, hilabete honetan bi aukera berri aurkezten dituzte: igande honetan Bergaran antolatuko den Kilometroak festa eta hilaren 21ean Binarri antolatuko den Nafarroa Oinez.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Josune Lazkano (Ibarra). Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

07-08 DENBORALDIA

Harpidedunen txokoa

BRUESA GBC BASKET CAI ZARAGOZA

OSTIRALA

URRIAK **5-20:30**

ILLUNBE

hitza Harpidedunen txokoa

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK

Bruesa-GBC / Basket Cai Zaragoza saskibaloitza taldeen arteko partidarako lau sarrera pare zozketatu ditu eta hauek dira irabazleak:

- ▶ Onintza Garziarena (Tolosa)
- ▶ Pablo Otegi (Zuzurkil)
- ▶ Jokin Tolosa (Amezketeta)
- ▶ Elena Askarai (Tolosa)

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoetan izango dituzue, pasa zaitzete haien bila lehenbailehen. ZORIONAK!!